EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

# BOZERAMAILEEN ADIERAZPENA ETA-REN AZKEN AGIRIA DELA-ETA

ETAk azken agirian, armak uzteko inolako borondaterik ez daukala iragartzeaz gain, mehatxatu egin du hurrengo Jaurlaritza ekintza terroristaren "lehentasunezko helburu" egitearekin. Horren aurrean, Eusko Legebiltzarreko Taldeetako bozeramaileek argi utzi nahi dugu:

1.- Hasteko eta behin, erabat gaitzesten ditugula ETAren mehatxu horiek, euskal gizartearen ordezkari politikoak eta, kasu zehatz honetan, Euskadiko Alderdi Sozialistaren ordezkariak izuarazteko asmoz eginak; bihoakie beraiei, bide batez, gure babes eta elkartasunik handiena adierazpen honen bidez.

2.- Erakundeak babestu egiten ditugula, Euskadiko herritarren borondate demokratikoaren isla dira-eta. Izan ere, babes hori inoiz baino premiazkoagoa dugu orain erakunde terrorista batek bere ikusmiran ipintzen dituenean.

3.- Konpromisoa hartzen dugula demokraziarekin eta askatasunekin; besteak beste, alderdi demokratiko guztiok bat eginik lan egiteko borondatearekin terrorismoari gogor egiteko eta haren jokaera totalitarioak politikoki eta sozialki deslegitimatzeko.

# DECLARACIÓN PORTAVOCES TRAS EL ÚLTIMO COMUNICADO DE ETA

En su último comunicado, ETA, además de anunciar que no tiene la más mínima intención de abandonar las armas, ha amenazado con hacer del próximo Gobierno un "objetivo prioritario" de su acción terrorista. Ante ello, los portavoces de los grupos parlamentarios queremos dejar claro:

1. En primer lugar, la condena más rotunda por estas amenazas de ETA, dirigidas a amedrentar a los representantes políticos de la sociedad vasca y, en este caso concreto, a los representantes del Partido Socialista de Euskadi, a quienes expresamos nuestro máximo apoyo y solidaridad.

2. Nuestro respaldo a las instituciones, que representan la voluntad democrática de la ciudadanía vasca. Un respaldo que se hace especialmente necesario cuando una organización terrorista las pone en su punto de mira.

3. Nuestro compromiso con la democracia y con las libertades, que incluye la voluntad de trabajar unidos todos los partidos democráticos para combatir al terrorismo y deslegitimar política y socialmente sus comportamientos totalitarios.